LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, HAZI FUNDAZIOAREN KUDEAKETAKO INFORMAZIO SISTEMAK BILAKAERA EGOKIA IZAN DEZAN LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da HAZI Fundazioak kontratista bat hautatzea, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen **Karatularen 1. puntuan** (hemendik aurrera, Karatula) adierazitako zerbitzuak egiteko.

Aipatutako zerbitzuak emango dira Agiri honi, Baldintza Teknikoen Agiriari eta kontratistaren proposamenari jarraituz.

Aurreikusten bada kontratuaren hainbat zati lotetan banatu eta modu independentean egitea, **Karatularen 1. puntuan** adierazten dira: kontratua zein lote zehatzetan banatzen den; dagokionean, lizitatzaile batek eskaintza zenbait lotetara aurkeztu dezakeen; dagokionean, lizitatzaile bakoitzari zenbait lote esleitu dakizkiokeen; kasu bakoitzean zehazten diren alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** adierazita dago.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea HAZI Fundazioa da (hemendik aurrera, erakunde kontratatzailea).

Kontratazio Organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazita dagoena da. Organo horrek, hala badagokio eta aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauei jarraituz, egoki irizten dituen pertsonei ahalmena eman ahal izango die, berariaz, kontratuari loturiko jarduketa konkretuak betetzeko.

3. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko zaio kalitate-prezio erlaziorik oneneko eskaintza aurkezten duen lizitatzaileari, Agiri honetan ezarritako esleipen irizpideen arabera (hemendik aurrera, eskaintzarik onena).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak eskaintzeko aukera, hala badagokio, **Karatularen 3. puntuan** adierazten da.

Aldaerak onartuz gero, **Karatularen 3. puntuan** adierazten dira gutxieneko eskakizunak, modalitateak eta aldaeron ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekin izan beharreko lotura ere.

5. KONTRATUAREN DOKUMENTAZIOA

Kontratu izaera izango dute, esleipenaren ondoren formalizatzen den kontratuaz gain, honako dokumentu hauek:

- Administrazio Klausula Partikularren Agiri hau eta bere Karatula.
- Baldintza Teknikoen Agiria.
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintza.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazten den beste edozein dokumentu.

Aipatutako dokumentuek sinatu egin beharko ditu esleipendunak, horiekin ados dagoela adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

6. KONTRATUAREN IRAUPEN EPEA

Kontratuaren iraupen epea **Karatularen 5. puntuan** dago adierazita.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** adierazita dago.

Bestalde, kontratuaren prezioa ere **Karatularen 6.1 puntuan** zehaztuta dago.

Kontratuaren prezio horrek kontratua gauzatzeko behar diren kostu guztiak barne hartuko ditu, besteak beste, honako hauek (aipatzen direnak azalpenezkoak dira soil-soilik, ez dira mugatzaileak):

- Kontratua gauzatzeko behar diren zuzeneko nahiz zeharkako kostu guztiak, agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotakoaren arabera; aurretiaz amaierako prezioan kontuan hartu beharreko kontzeptuengatiko fakturaziorik ez da gerora onartuko.

Kontratua gauzatzeari berez dagozkion kontzeptu guztiak eta gauzapenean parte hartu duten langileekin loturiko gastu guztiak (alegia, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko pagak, gau ordutegian eta jaiegunetan egindako lanak, bajagatik edo gaixotasunagatik egindako ordezkapenak, banakako istripu aseguruak, etab.), baita honako hauek ere: zergak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio eta desplazamendu gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak.

- Kontratistak kontratua gauzatzeko erabili beharreko baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipamendu, tresna, ekipamendu informatiko eta aparatu guztiak.
- Erakunde kontratatzaileak zehazten dituen lan nahiz informazio bilera guztietara joatea, kontratua egoki garatzea eta betetzea ahalbidetzeko.

- **Karatularen 6.1 puntuan** zerrendatutako kontzeptuen arteko edozein.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuan balio zenbatetsia **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitakoa da, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL), azaroaren 8koaren, 101. artikuluan aurreikusitako moduan eta ondorioetarako kalkulatuta, zeinaren bidez Espainiako araubide juridikora lekualdatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez dio konpromiso zehatzik ekartzen erakunde kontratatzaileari.

8. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratuaren prezioa **hilean behin ordainduko** da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu eta gero.

Kontratistari hilero ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, kontratistak eskainitako unitateko prezioa eta dagokion hilabetean benetan hornitutako unitateak hartuko dira kontuan.

Kontratistak **hilean behin egin beharko du faktura** zehaztua, zerbitzuei dagokien hilabetea amaitzen denetik zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean.
Erakunde kontratatzaileak 30 egun naturaleko epean ordaindu beharko hilean behingo zenbateko hori, zerbitzuei dagokien hilabetea amaitzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta faktura adierazitako epean egin bada eta erakunde kontratatzailearen oniritzia jaso badu.

Agiri honetan jasotzen den kontratuaren xedetik kanpo edo, hala badagokio, erakunde kontratatzaileak aurrez eskatu gabe egindako lanik edo zerbitzurik ez da ordainduko.

9. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen 8. puntuan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean hauek argitaratu beharko dira:

- Lizitaziorako deialdiaren iragarkia.
- Kontratuaren esleipenaren iragarkia.
- Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.
- SPKLren 63l. artikuluan zerrendatzen den gainerako informazioa.

Erakunde kontratatzailearen kontratatzaile profilera webgune honen bidez sartzen da:

www.hazi.eus / www.contratacion.euskadi.eus

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, **Karatularen 9. puntuan** adierazitako zenbatekoarekin.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak egiaztatu beharko du behin betiko bermea eratu duela, 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta biharamunean zenbatzen hasita.

Aipatutako behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die, 108. artikuluan aurreikusitako moduren batean eratu ahal izango da, eta ez da beharrezkoa izango Gordailuen Kutxa Orokorrean eratzea.

Abal gisa ematen bada, Agiri honetan **I. Eranskin** gisa jasotako ereduari lotuko zaio.

Bermea eratu dela bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermearen gainean gauzatzen badira, kontratistak bermea birjarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, kontratua betetzen denetik hamabost egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketa baten ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea egokitu beharko du, aldatutako prezio berriarekin behar besteko proportzioa izan dezan. Kontratistak bermea aldatzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, aldatzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Bermea SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme epea igaro eta kontratistak bere kontratu betebehar guztiak bete ondoren.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratatzaileak aldeko txostena egin beharko du aldez aurretik.

Klausula honetan aurreikusi ez denerako, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratatzailearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten pertsona naturalek edo juridikoek, izan espainiarrak izan atzerritarrak.

Enpresa lizitatzaileek, era berean, exijitzen zaien enpresa edo lanbide gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko.
Pertsona juridikoak kontratuen esleipendunak izan ahal izateko, beren Estatutuen edo fundazioko erregelen arabera berez dagozkien xede, helburu edo jarduera alorren barruan egon beharko dira kontratu horietako prestazioak.

Erakunde kontratatzailearekin kontratatuak egiteko gaitasuna izango dute, beti ere, Europar Batasuneko Estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena izenpetu duten Estatuetako enpresa ez-espainiarrek, kokatuta dauden Estatuko legediaren arabera dena delako prestazioa gauzatzeko gaituta daudenak, non SPKLren 67. artikuluan xedatutakoa izango den aplikatzekoa.

Enpresa horiek ezarrita dauden Estatuaren legediak baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea exijitzen badu bertan dena delako prestazioa egiteko, enpresek baldintza hori bete egiten dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko erabakiek Espainiarentzat dakartzaten betebeharrak aplikatzeari kalterik egin gabe, Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioaren sinatzaileak ez diren estatuetako pertsona fisikoek edo juridikoek justifikatu egin beharko dute, txosten baten bidez, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartu egiten duela, baita ere, Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoekin parekatu daitezkeen erakundeen kontratazioan, modu nabarmen analogoan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio.

Erakunde kontratatzailearekin kontratuak egin ahal izango dituzte aldi baterako horretarako eratzen diren enpresari elkarteak. Elkarte horiek eskritura publiko bidez formalizatzea ez da beharrezkoa izango kontratua haien alde esleitzen den arte, eta SPKLren 69. artikuluan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa lizitatzaileek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional eta teknikoari dagokienez, **Karatularen 10. puntuan** adierazten den bezala.

Hala badagokio, enpresa lizitatzaileek, gutxienez, **Karatularen 10. puntuan** adierazten diren giza baliabideak edota baliabide materialak jarri beharko dituzte kontratua gauzatzeko.

Modu osagarrian, enpresa lizitatzaileek bete egin beharko dituzte, hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazten diren baldintza espezifikoak.

Enpresa lizitatzaileei exijitu egiten bazaie kontratua betetzeko giza baliabide edota baliabide

material jakin batzuk jartzea, konpromiso hori kontratuko funtsezko betebeharra izango da SPKLren 211.f) artikuluan xedatutako ondorioetarako; beraz, betebehar hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero.

Kontratua suntsitzearen alternatiba gisa, kontratistak, alde bakarreko erabakia hartuz, kontratua betetzeko jarritako pertsona aldatzen badu, erakunde kontratatzaileak konprometitutako pertsona berehala jartzeko exijitu ahal izango dio, edo, bestela, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla-eta ezinezkoa bada, haren lekuan prestakuntza eta esperientzia berbera duten giza baliabideak berehala jartzeko eskatuko dio. Pertsona horrek erakunde kontratatzailearen berariazko baimena eduki beharko du.

Exijitzen den kaudimena eta exijitzen diren baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatzeko, enpresa lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean edota baliabideetan oinarritu ahal izango da, enpresokin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera, baldin eta frogatzen badu kontratua indarrean dagoen bitartean kaudimena edota baliabide horiek benetan dauzkala, eta kaudimena edo baliabideak ziurtatzeko baliatu duen erakundeak ez daukala kontratatzeko inolako debekurik.

Beste erakunde batzuen kaudimenean edota baliabideetan oinarritu nahi duten enpresa lizitatzaileek adierazi egin beharko dute hori 1. Gutun Azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, Kontratatzeko Europar Dokumentu Bakarraren II. zatiaren C atalean), **II. Eranskineko** ereduaren arabera. Kasu horietan, hirugarren erakunde horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, **III. Eranskineko** ereduaren arabera.

Modu osagarrian, eskaintzarik onena aurkezten duen enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean edota baliabideetan oinarritu nahi badu, behar diren baliabideak edukiko dituela frogatu beharko du, eta horretarako, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du **(II. Eranskinean** jasotzen den ereduaren arabera landuta).

Konpromiso hori notarioaren aurrean eman beharko du eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak adierazten duen erakundeak edo erakundeek, zeina eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, honako hauek adieraziz: irismen osoan ezagutzen ditu lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzak; aipatutako kaudimena eta/edo atxiki beharreko bitartekoak ditu, eta hori guztia egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko du (17. Klausulan xedatutako moduan); eta, modu ezeztaezinean, lizitatzailearen eskura jarriko ditu, esleipendun ateratzen bada, kontratua gauzatzeko behar diren bitartekoak (berariaz onartuta Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa, erakunde kontratatzaileak berariaz baimendu beharko duelarik hura ordeztea edo aldatzea). Idatzi hori aurkeztearen ondorioa izango da erakunde kontratatzaileak konpromiso hori onartzea, baldin eta dena delako lizitatzailea esleipendun ateratzen bada.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurkeztuko du konpromiso hori, 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta biharamunean zenbatzen hasita.

Kontratuak egiteko gaitasun, kaudimen eta debekurik ezari buruzko zirkunstantziak, zeinak Klausula honetan aipatzen diren, bete egin beharko dira eskaintzak aurkezteko azken datan, baita

kontratua burutzen den unean ere.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria erakunde kontratatzailearen kontratatzaile profilean egongo dira eskuragarri lizitazio iragarkia argitaratzen den egunetik hasita, proposamenak aurkezteko epe guztian.

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria baliabide ez-elektronikoen bidez eskura daitezkeen kasuetan, **Karatularen 11.1 puntuan** adieraziko da.

13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren Xedapen gehigarrian ezarritako baldintzen arabera, salbu eta aipatu SPKLren Xedapen gehigarriko 3. atalean xedatutako inguruabarren bat agertzen bada eta **Karatularen 11.1 puntuan** horrela ezartzen bada.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, data zifratzea eta baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren webgunean daude adierazita, honako helbide honetan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez bidali ahal izango dira, bi fasetan: lehenik, eskaintzaren aztarna elektronikoa transmitituko da, eta, hori jasota, eskaintza aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako. Ondoren, eskaintza bera gehienez ere 24 orduko epean bidaliko da. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza kendu dela ulertuko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu multzo bat da, eskaintzaren beraren edukiarekin argi eta garbi erlazionatzen direla bermatzen duen sortze prozesutik ateratzen dena, eta eskaintzaren edukian egon daitezkeen aldaketak detektatzeko aukera ematen duena, eskaintzaren osotasuna bermatuz. Espedienteari erantsi beharreko dokumentuen kopia elektronikoek administrazio prozedura erkidearen arloan horretarako indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko dute, eta horretan ezarritako ondorioak izango dituzte.

13.3. GUTUN AZALEN NAHIZ FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Enpresa lizitatzaileen proposamenek Agiri honetan eta bere Karatulan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratuaren gainerako dokumentazioan jasotakoari jarraitu beharko diote, eta proposamen bat aurkezteak berekin ekarriko du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula guztien edukia, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe.

Gutun azal bakoitzean ondoren adierazten diren dokumentuak egongo dira, bertan sartutako dokumentuen zerrenda zenbakituarekin batera.

Gutun azalak deituko dira 1. Gutun Azala, 2. Gutun Azala eta 3. Gutun Azala.

1. gutun azala. "ALDEZ AURREKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Aldez aurreko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa.

   - Erantzukizunpeko adierazpena, Agiri honi **II. Eranskin** gisa atxikitzen zaion Europako Kontratazio Agiri Bakarreko (aurrerantzean, EKAB) formularioaren arabera.

   - EKAB betetzeko, jarraitu egin behar zaie Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren I. Eranskinean jasotzen diren jarraibideei; Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatua ezartzen du.
   - EKABeko "IV. Zatia: hautapen irizpideak" zatiari dagokionez, lizitatzaileek A atala bakarrik bete beharko dute: "Hautapen irizpide guztiei buruzko argibide globala". Agiri honen 12. Klausulari jarraituz enpresa lizitatzaile batek beste erakunde batzuen kaudimen edota baliabideetara jotzen badu, enpresa horrek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, non EKABeko II. eta III. zatietako A ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") ataletan eskatzen den informazio egokia jasoko den.
   - Zenbait enpresa aldi baterako elkarte batean batuta aurkezten badira, parte hartzen duen enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, non EKABeko II. zatitik V. zatira eskatzen den informazioa jasoko baita.

   - Aldi baterako elkarte batean batuta lehiatu nahi duten enpresek adierazi beharko dute elkarte hori osatzen dutenen izenak, zirkunstantziak eta bakoitzaren partaidetza, esleipendun suertatuz gero aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa agertzeaz gainera. Aldi baterako elkarte batean batuta lehiatu nahi duten enpresariek solidarioki erantzun beharko dute eta elkartearen ordezkari edo ahalordedun bakarra izendatu beharko dute, eta ordezkari horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak erabiltzeko eta obligazioak betetzeko behar adina ahalmen izango du, kontratua amaitu arte; horrek ez du esan nahi, ordea, enpresek ahalorde mankomunaturik eman ahalko ez dutenik zenbateko esanguratsuko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

2. Atzerriko enpresek adierazpen bat aurkeztu behar dute Espainiako edozein mailatako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jasotzen duena, kontratutik zuzenki nahiz zeharka sor litezkeen intzidentzia guztietarako. Adierazpenean, halaber, uko egingo diote lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari.

3. Balio judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioa, **Karatularen 11.2. puntuan** adierazten dena.

OHARRAK:

1. Erakunde kontratatzaileak lizitatzaileei eskatu ahal izango die aurkez dezatela justifikazio dokumentu guztiak edo horien zati bat, baldin eta 1. puntuko adierazpenaren indarraldiak edo fidagarritasunak zentzuzko zalantzarik pizten badu edo prozeduraren garapen onerako beharrezkoa bada.

Aurrekoa gorabehera, enpresariak izena emana badu Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazionalean agertzen bada, hala nola enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurre-sailkatzeko sistema batean, eta aipatutako organoak horietan dohainik sartu badaitezke, enpresariak ez du aipatutako lekuetan dituen datuen justifikazio dokumenturik edo dokumentuzko frogarik aurkeztu beharrik izango.

2. gutun azala. "BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA KUANTIFIKATU BEHAR DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek **Karatularen 11.2 puntuan** adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun azal honetan.
Erakunde lizitatzaileak tentu bereziz osatu beharko du Gutun Azal honetan sartu beharreko dokumentazioa, edukiari buruz ematen diren argibideei jarraituz. Era berean, ez da eskaintzaren alderdi ekonomikoak jakinarazi edo horien arrastorik eman dezakeen erreferentziarik egingo.

Printzipio horien aurka egiten duten eskaintzak ez dira kontuan hartuko, eta prozeduratik baztertuko dira.

Erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du, halaber, egoki ikusten dituen egiaztatze lanak egiteko eta beharrezkotzat jotzen duen nahi adina dokumentu osagarri eskatzeko, xedea enpresa lizitatzaileek aurkeztutako informazioaren benetakotasuna egiaztatzea baldin bada.

3. Gutun Azala.
"FORMULAK ERABILIZ EBALUAGARRIAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek Agiri honen **V. Eranskin** gisa atxikitako ereduari jarraituz aurkeztu beharko dute formulak erabiliz ebaluagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa.

Erakunde kontratatzaileak bai esleipenaren aurretik bai esleipenaren ostean, eta baita kontratua bete bitartean ere, egiaztatu ahal izango du 1, 2 eta 3. Gutun Azaletako edukiaren benetakotasuna. Enpresak aurkeztutako datuak eta zirkunstantziak faltsuak badira, kontratua deuseztatu egin daiteke, enpresa kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzea dela eta.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Esleitzeko irizpideak –dagokien haztapenarekin adieraziak– **Karatularen 12. puntuan** adierazitakoak izango dira.

14. EBALUAZIO BATZORDEA

Ebaluazio Batzordeak Kontratazio Organoari lagunduko dio. **Karatularen 13. puntuan** adierazten diren kideek osatuko dute Batzordea.

15. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak aldez aurretik kalifikatuko du 1. Gutun Azaleko dokumentazioa ("Aldez aurreko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa"), zeina behar den denboran eta forman aurkeztuko baita. Aurkeztutako dokumentazioan akats zuzengarririk detektatzen badu, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari zuzendu ditzan.

Eskaintzak aurkeztu ondoren, 2. Gutun Azala irekiko da ("Balio judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioa"), gutun azalean dagoen dokumentazioa aztertze eta baloratze aldera, eta prozeduratik at geratuko dira.

Balio judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei dagokienez, formulen arabera ebaluatu beharreko irizpideei baino haztapen handiagoa ematen bazaie, judizio balioen arabera kuantifikatutako irizpideen balorazioa Batzorde batek egingo du, zeina **Karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatuko baitute.

2. Gutun azaleko dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. Gutun azala irekiko da ("Formulak erabiliz ebaluagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa").

3. Gutun azala ireki aurretik ("Formulak erabiliz ebaluagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa"), balio judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza emango zaie lizitatzaileei.

Hori eginda, 3. Gutun azala irekiko da ("Formulak erabiliz ebaluagarriak diren irizpideei buruzko dokumentazioa"), aztertzeko eta baloratzeko.

Nolanahi ere, 2. Gutun Azala ("Balio judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioa") eta 3. Gutun Azala ("Formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ekitaldi publikoan irekiko dira, salbu eta, **Karatularen 11.1 puntuaren** arabera, proposamenak bitarteko elektronikoz aurkezten badira.

2. Gutun Azala ("Balio judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioa") eta 3. Gutun Azala ("Formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ekitaldi publikoan irekitzen badira, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie 2. Gutun

Azala ("Balio judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioa") eta 3. Gutun Azala ("Formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekitzeko eguna, ordua eta lekua. Datu horiek guztiak, halaber, erakunde kontratatzailearen kontratatzaile profilean argitaratuko dira, gutxienez 48 ordu lehenago.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan xedatzen diren kausaren batean sarturik dauden proposamenak, eta Kontratazio Organoari helaraziko dio aurkeztutako proposamenen zerrenda, beheranzko hurrenkeran sailkatuta, **Karatularen 12. puntuan** xedatzen diren esleipen irizpideak kontuan hartuz, eta eskaintzarik onena identifikatuko du.

Ondoren, kontratazio mahaiak hau egingo du:
- Eskaintzak ebaluatu eta sailkatu
- Puntuaziorik handiena duen eskaintzaren aldeko esleipen proposamena egin.
- ROLECSP erregistroan gaitasun juridikoari, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoari eta kontratatzeko debekuei buruz jasotako alderdiak egiaztatu. ROLECSPeko inskripzioan daturen bat falta bada, kontratua esleitu aurretik behar den dokumentazioa eskatu, gaitasun juridikoa, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa eta kontratatzeko debekuak egiaztatzeko.

Proposamena formulatu aurretik, HAZIk egoki iritzitako nahi adina txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintzari bereziki baxua irizten bazaio, **Karatularen 12. puntuan** adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLren 149. artikuluan xedatutako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan, 5 egun balioduneko epean, horretarako egindako errekerimendua bidali denetik.

Esleipen proposamenak ez dio lizitatzaileari inolako eskubiderik ematen erakunde kontratatzailearen aurrean. Hala ere, Kontratazio Organoak ez badu kontratua formulatutako proposamenaren arabera esleitzen, erabakia arrazoitu egin beharko du.

16. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Esleipenerako lizitatzailea aukeratzeko, Kontratazio Organoak, arau orokor gisa, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenari jarraituko dio. Bestela, Kontratazio Organoak proposamenetik aldentzeko erabakia arrazoitu egin beharko du, eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko sailkatzeari ekingo dio.

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartutakoan, erakunde kontratatzaileak zera eskatuko dio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari: hamar egun balioduneko epean –errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita– honako dokumentazio hau aurkezteko:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko edo Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko indarreko inskripzio

ziurtagiriaren kopia, Erregistroko letradu arduradunak egina. Inskripzio ziurtagiriari lizitatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko zaio. Horren arabera, adieraziko du dokumentuan jasotako zirkunstantziak ez direla aldatu.

- Ez badaude inskribatuta, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Eskaintzak aurkezteko amaiera datan erakunde kontratatzailearekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintza guztiak eta Agiri honen 12. Klausulan jasotzen diren gaitasun, kaudimen eta kontratatzeko debeku ezarekin loturiko baldintza guztiak betetzen direla justifikatzen duen dokumentazioa, ondoren adierazten den moduan.

   Aldi baterako elkarte batean integratuta lehiatu nahi duten enpresek egindako proposamenen kasuan, dokumentazio hori elkartea osatuko duten enpresa guztiei buruzkoa izango da.

   (i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren izaera eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresen jardute gaitasuna eskritura edo eraketa dokumentu bidez, Estatutuen edo sorrera egintzaren bidez egiaztatuko da, non jarduera erregulatzen duten arauak jasoko diren, eta, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuta –pertsona juridikoaren arabera– egongo dira.
   - Europar Batasuneko enpresa ez-espainiarren jarduteko gaitasuna, berriz, ezarrita dauden Estatuko legediaren arabera dagokien Erregistroan inskribatuta egotearen bidez egiaztatuko da, edo, bestela, zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat aurkeztuz, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenei jarraituz.
   - Atzerriko gainerako enpresek enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak igorritako txostena aurkeztuta egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna. Txosten horren bidez justifikatu egin beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko Estatuak ere onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko pareko erakundeekiko kontratazioan, eta era berdintsuan egiten dela.
   - Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion Estatuko agiri baliokidea aurkeztuz egiaztatuko da.
   - Inoren izenean agertu edo proposamenak inoren izenean sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, baita horretarako ahalorde askietsia badutela ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatu behar da, Merkataritza Erregistroaren Araudiaren 94. artikuluan xedatutakoaren arabera hala behar duenean, edo, hala badagokio, dena delako Erregistro Publikoan, pertsona juridikoaren arabera.

   Dokumentazio hori guztia originala izango da, edo behar bezala konpultsatutako kopia bat.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatzaileek, atal honetan eskatzen den dokumentazioaren ordez (i), indarreko inskripzio ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango dute. Ziurtagiria Erregistroko letradu arduradunak egingo du. Inskripzio ziurtagiriari lizitatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko zaio. Horren arabera, adieraziko du dokumentuan jasotako zirkunstantziak ez direla aldatu.

(ii) Kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa, agiri honen 12. Klausulan eskatzen dena.

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa. Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozioen bolumena honela egiaztatuko da:

  - Merkataritza Erregistroan jasotako eta onartutako urteko kontuak aurkeztuta, enpresa erregistro horretan inskribatuta badago, eta bestela, kasu bakoitzean inskribatuta egon beharreko erregistro ofizialean jasotakoak aurkeztu beharko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresa indibidualek beren inbentario liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute urteko negozioen bolumena, Merkataritza Erregistroak horiek legeztatu ondoren.

  - Lizitatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta, lizitatzailearen negozio bolumena adieraziz.

- Kaudimen tekniko edo profesionala. Hala badagokio, eskatzen den kaudimena egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako lanen edo zerbitzuen zerrenda aurkeztu beharko da, non lanon eta zerbitzuon zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua adieraziko baitira. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, egindako lan eta zerbitzu horiek organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako agirien bidez egiaztatuko dira; hartzailea subjektu pribatu bat denean, berriz, berak egindako egiaztagiri bat aurkeztuko da eta, halako egiaztagiririk ezean, lizitatzailearen adierazpen bat, lizitatzaileak berak dauzkan eta prestazioa egina dagoela egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

  Kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urtetik beherako enpresa bat denean, SPKLren 89.1 artikuluaren b)-tik g)-ra bitarteko letretan aipatzen diren baliabide baten edo gehiagoren bidez egiaztatuko da kaudimena. Kontuan izanik inondik inora ere ez dela aplikatzekoa izango a) letran zerbitzu kopuru jakin bat betetzeari buruz xedatzen dena.

- Sailkapena. Hala badagokio, organo eskudunak egindako agiri baten bidez egiaztatuko da sailkapena; horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, non enpresa lizitatzaileak adieraziko duen sailkapena indarrean dagoela eta dagokion egiaztagirian jasotako zirkunstantziak ez direla aldatu. Adierazpen hori berriz ere aurkeztuko da, esleipendun suertatuz gero, kontratua formalizatzen den dokumentuan.

Agiriak egiaztatu beharko du lizitatzailea zehazten den taldean eta azpitaldean sailkaturik dagoela, aipatutako kategorian edo goragoko batean.

Agiri horrek, gainera, Klausula honen 1. (i) atalean jasotzen diren zirkunstantziak egiaztatu ahal izango ditu, alegia, lizitatzailearen izaera eta jarduteko gaitasuna eta, hala badagokio, haren ordezkariarena.

(iii) Lizitatzaileak kontratuak egiteko debekurik ez duela adierazten duen lekukotza judiziala edo administrazio ziurtagiria; debeku horiek SPKLren 71. artikuluan xedatzen direnak dira.

Eskumena duen agintaritzak ezin badu dokumentu hori eman, beste erantzukizunpeko adierazpen batekin ordezkatu ahal izango da; betiere, administrazio agintaritza batek, notario publiko batek edo gaitutako erakunde profesional batek emandakoa bada.

(iv) Hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** zehazten diren baldintza espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Lizitaziora Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoa sinatu duen estatu bateko enpresaburu atzerritarrak aurkezten badira, haien gaitasuna, kaudimena eta debekurik eza egiaztatu ahal izango da, dela estatu kide batean baimendutako operadore ekonomikoen zerrenda ofizialean kontsulta eginda, dela alderdi horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuta.

2. Hala badagokio, kontraturako agindutako giza baliabideak eta baliabide materialak egiazki edukitzea egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i) Hala badagokio, kontratua betetzeko agindutako baliabide materialei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua betetzeko jarritako talde osoaren identifikazio izenduna, curriculum vitaearen fitxekin batera, non eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatuko den:
  1. Titulazio akademiko ofiziala.
  2. Dagokion alorreko esperientzia.
  3. Erakunde kontratatzaileak, hala badagokio, eskatzen duen beste edozein aspektu.
- Giza baliabide horiek guztiak egiazki edukitzea egiaztatzen duen dokumentazioa.

Zera geratzen da jasota: datuak babesteari buruz aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren arabera eta giza baliabideei buruz aipatu den dokumentazioan jasotzen den informazioaren izaera kontuan hartuta, (i) datuak biltzeak eta erabiltzeak berekin ekarriko du datuon tratamendua lizitatzailearen eskutik, Tratamenduaren Arduraduna izango baita; eta (ii) Klausula honetan xedatutakoa betez datuak erakunde

kontratatzaileari entregatzea hark –lagatzaile gisa– egindako datu komunikaziotzat joko da.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak bete egin beharko ditu datuak babesteari buruz aplikatzekoa den araudian xedatutakotik enpresa horrentzat ondorioztatzen diren obligazioak, aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamenduari eta komunikazioari dagokionez. Bereziki, eta Tratamenduaren Arduradun gisa kontuan izan beharreko beste edozein obligazioren kalterik gabe, hautatutako lizitatzaileak, bere erantzukizun esklusiboaren pean, pertsona interesdunen baimen informatua lortu beharko du aipatu dugun datu komunikazioa egin ahal izateko, eta hori behar bezala egiaztatu beharko du erakunde kontratatzailearen aurrean, hala eskatzen zaionean.

(ii) Hala badagokio, kontratua betetzeko agindutako baliabide materialei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua betetzeko jarriko diren baliabide materialen identifikazioa, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.
- Baliabide material horiek guztiak egiazki edukitzea egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du egoki ikusten dituen egiaztatze lanak egiteko eta beharrezkotzat jotzen duen nahi adina dokumentu osagarri eskatzeko, xedea lizitatzaileek aurkeztutako informazioaren benetakotasuna egiaztatzea izanik.

3. Agiri honen 11. Klausulan xedatzen den behin betiko bermea eratu izana egiaztatzen duen agiria.

4. Hala badagokio, notarioaren aurrean egindako adierazpenen akta, lizitatzaileak, eskatzen den kaudimena edota baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimen edota baliabideetan oinarritu nahi badu, **IV. Eranskinean** dagoen ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkarte baten legezko eraketaren egiaztagiria. Aldi baterako elkartearen ordezkari edo ahalordedun bakarra izendatu beharko da, kontratua amaitu arte kontratutik eratortzen diren eskubideak erabiltzeko eta obligazioak betetzeko behar adina ahalmenekin.

Erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du egoki ikusten dituen egiaztatze lanak egiteko eta beharrezkotzat jotzen duen nahi adina dokumentu osagarri eskatzeko, xedea lizitatzaileek aurkeztutako informazioaren benetakotasuna egiaztatzea izanik.

Aurkeztutako dokumentazioan akats zuzengarririk detektatzen badu, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari zuzendu ditzan.

Dokumentazioaren errekerimendua adierazitako epean egoki betetzen ez bada edo aurkeztutako dokumentazioak ezin zuzenduzko akats edo omisioak badauzka, ulertuko da lizitatzaileak baztertu

egin duela bere eskaintza; hala, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3aren zenbatekoa exijituko zaio (BEZ barik) zigor gisara, eta eskaintzen sailkapenaren ordena kontuan hartuz hurrengo lekuan geratu den enpresa lizitatzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio.

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan eta proposamenak irekitzen diren egunetik gehienez ere bi hilabeteko epean esleituko du kontratua.

Kontratazio Organoak ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du esleipena. Hori hautagai eta lizitatzaileei jakinarazteko, hautagai eta lizitatzaileok aukeratutako baliabideak erabiliko dira. Ebazpena erakunde kontratatzailearen kontratatzaile profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

17. KONTRATUA BURUTU ETA FORMALIZATZEA

Kontratua bere formalizazioaren bidez perfekzionatuko da.

Kontratua, berez, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz doituko den dokumentu pribatu batean formalizatuko da. Kontratua formalizatzen den dokumentuan ezin izango da sartu, inondik ere, kontratazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Esleipendunak, dena den, kontratua eskritura publikoan jasotzeko eskatu ahal izango du, dagozkion gastuak bere gain hartuz.

Lizitatzaileei eta hautagaiei esleipena jakinarazi eta gehienez ere hurrengo hamabost egun balioduneko epean egingo da formalizazioa.

Kontratuaren formalizazioa dagokion kontratuarekin batera argitaratuko da, kontratua burutu osteko hamabost egun naturaleko epean gehienez ere, erakunde kontratatzailearen kontratatzaile profilean.

Enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua ez bada adierazitako epe barruan formalizatzen, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3ren zenbatekoa exijituko zaio enpresari (BEZ barik), zigor gisara. Zenbateko hori, lehenik, behin betiko bermearen kontura gauzatuko da; horrek ez du esan nahi, ordea, SPKLren 71. artikuluaren 2) atalaren b) letran xedatzen dena beteko ez denik. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapenaren ordenari jarraituz, eta agiri honen 17. Klausulan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren. Dokumentazio hori aurkezteko, hamar egun balioduneko epea emango da.

18. KONTRATUAREN ERANTZULEA

Kontratazio Organoak kontratuaren erantzule bat izendatuko du, zeinaren ardura izango baita kontratua betetzen dela gainbegiratzea eta itundutako prestazioa zuzen egiten dela ziurtatzeko hartu behar diren erabakiak hartzea eta aginduak ematea, betiere erakunde kontratatzaileak ematen dizkion eskumenen barruan.

Kontratuaren erantzulea pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzailearekin lotuta dagoena edo zerikusirik ez duena.

Kontratuaren erantzuleak ematen dituen aginduak derrigorrez bete beharko ditu kontratistak.

19. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua baldintza hauen arabera beteko da:

- Kontratistak ezarrita dauden baldintzen arabera beteko du kontratua, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan eta bere Karatulan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoaren arabera, eta erakunde kontratatzaileak, kontratua interpretatuz, enpresa kontratistari eman liezazkiokeen aginduen arabera.
- Kontratuak indarrean dauden legezko eta arauzko xedapenak eta xedapen konbentzionalak bete behar ditu; baita lan gaietan, Gizarte Segurantza arloan eta laneko osasun arloan aplikatzekoak diren xedapenak ere.

  Testuinguru horretan, balio judizioen arabera kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa duen 2. Gutun azalean, lizitatzaileek, esleipena lortzen badute, adieraziko dute zein hitzarmen kolektibo aplikatu behar zaien kontratuaren xedeko jarduera egingo duten langileei. Kontratistak kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

  Modu osagarrian, kontratista behartuta dago behar adina informazio ematera, kontratua esleitu ondoren, langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan.

  Kontratua bete bitartean, kontratistak aplikatu beharreko sektorearen hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, langile bakoitzari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordainduko den soldata ez da inondik ere hura baino txikiagoa izango.

  Atal honetan xedatutakoa bete beharreko baldintza berezitzat eta funtsezko obligaziotzat jotzen da SPKLren 211.f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako; baldintza horren edozein ez-betetze, beraz, kontratua suntsitzeko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero.

- Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara beteko da.

- Erakunde kontratatzaileak edozein unetan eta edozein baliabideren bidez kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango du ea kontratuzko obligazioak zuzen betetzen ari diren eta kontratua egoki gauzatzen ari den.

  Xede horretarako, erakunde kontratatzaileak egokitzat jotzen dituen kanpo laguntzak bildu ahal izango ditu, kontratu obligazioak zuzen betetzen diren eta lanen kalitate maila egokia

den egiaztatu eta ikuskatzeko.

Kontratistak, halaber, erakunde kontratatzaileak zerbitzuei buruz eskatzen dizkion behar beste datu emango ditu, eta, gainera, behar beste laguntza emango du inolako kostu gehigarririk gabe; eta are gehiago: kontratatutako zerbitzuekin lotutako lan arloko, administrazio arloko eta bestelako dokumentazioa eskuratzeko aukera ere emango du.

Kontratistak ezin izango ditu erakunde kontratatzailearen eskutik datozen ikuskatze eta kontrol lanak oztopatu.

Hala ere, erakunde kontratatzaileak edozelako ez-betetzea edo eragozpena sumatzen badu, zuzenean jakinaraziko zaio kontratuaren erantzuleari, azken batean hari baitagozkio zerbitzua ematen duten langileen antolamendu eta ikuskapen ahalmenak, eta, hala badagokio, baita ahalmen zehatzaileak ere.

- Langile guztiak kontratistaren menpe egongo dira esklusiboki, izan ere, kontratista baino ez da izango, enplegatzailea den aldetik, dagozkion eskubide eta betebeharren jabe; hala, erakunde kontratatzaileari ezin izango zaio halako lan harremanen edo gainerako obligazioen ondoriozko erreklamaziorik egin.

  Ondorio horietarako, kontratistak obligazio hauek hartuko ditu bere gain:

  - ✓ Kontratistari baino ez dagokio langileak hautatzeko lana. Langile horiek Agirietan eskatutako titulazio eta esperientzia betekizunak beteta, kontratua bete dadin jarritako lantaldearen parte izango dira; horrek ez du esan nahi, ordea, erakunde kontratatzaileak betekizun horiek betetzen diren egiaztatu ahalko ez duenik.
  - ✓ Kontratistak ahalegina egingo du lantaldea egonkorra izan dadin eta taldearen osaeran noizean behingo aldaketak baino ez daitezen egon –justifikatutako arrazoiengatik–, zerbitzuaren funtzionamendu onari alteraziorik ez eragiteko xedez, eta betiere erakunde kontratatzaileari informazioa emanez.
  - ✓ Kontratistak bere gain hartuko du kontratua betetzeaz arduratzen den lantaldeko langileengan enpresa orori dagokion zuzendaritza ahalmena modu erreal, efektibo eta jarraian erabiltzeko betebeharra.
    Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldatak ordaintzea eta negoziatzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; baja edo absentzia kasuetan langileak ordeztea; Gizarte Segurantzari buruzko legezko betebeharrak, kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea barne, hala badagokio; laneko arriskuen prebentzioari buruzko lege betebeharrak; diziplina ahalmena erabiltzea; eta baita alderdi enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen den eskubide eta betebehar oro ere.
  - ✓ Kontratistak bereziki zainduko du kontratua betetzeko jarritako langileek ez dezaten beren jardueran bete beharreko funtzioetan neurria gainditu, Agirietan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerarekiko.
  - ✓ Kontratistak langile taldeko koordinatzaile tekniko edo arduradun bat gutxienez izendatu beharko du obligazio hauek bete ditzan:

a) Erakunde kontratatzailearen aurrean enpresa kontratistaren solaskide gisa jardutea, kontratistaren eta kontraturako jarritako langileen arteko komunikazioa bideratuz batetik, eta kontratua betetzearen ondoriozko gai guztietarako bestetik.
b) Kontratua betetzeaz arduratzen diren langileen artean lana banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateari dagokionez beharrezkotzat jotzen diren lan agindu eta jarraibideak ematea langileoi.
c) Lantaldeko langileek beren funtzioak ondo betetzen dituzten gainbegiratzea; bai eta langile horiek lanpostura agertzen diren kontrolatzea ere.
d) Kontratua betetzeko jarritako langileen oporren araubidea antolatzea; horretarako, enpresa kontratista erakunde kontratatzailearekin behar bezala koordinatu beharko da, zerbitzuaren funtzionamendu onak ez dezan alteraziorik jasan.
e) Erakunde kontratatzaileari kontratua betetzeko jarritako lantaldean izandako noizean behingo aldakuntzen nahiz aldakuntza iraunkorren berri ematea.

Enpresa kontratista erantzule bakarra izango da kontratua betetzeko lanean diharduten langile propioekin edo azpikontratazioetako balizko langileekin loturiko edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala nahiz estrajudiziala). Erakunde kontratatzaileak ez du bere gain hartuko kontratistak zuzenki edo zeharka bereganatzen duen lan, Gizarte Segurantza edo zerga arloko inolako erantzukizunik. Era berean, kontratistak kontratua betetzeak eragindako ezbeharretatik ondorioztatzen diren erantzukizunak baino ez ditu bere gain hartuko.

- Enpresa kontratistak bere lokal edo instalazioetan bete beharko du kontratua derrigorrez, Karatulan edota Baldintza Teknikoen Agirian zerbitzua erakunde kontratatzailearen lokal edo instalazioetan eman beharra dagoela adierazten ez bada behintzat.

  Kasu horretan, erakunde kontratatzaileak kontratistaren esku utziko ditu erakunde kontratatzaileak erabiltzen dituen languneetatik bereizirik dauden espazioak, eta kontratistari egokituko zaio kontratua betetzeko jarritako langileek eman zaien kokalekua errespetatuko dutela zaintzea.

  Kontratuaren xedearen izaera dela-eta enpresa kontratistak erakunde kontratatzailearen lokal edo instalazioetan eman behar baditu zerbitzuak, enpresa kontratistak, prestazioa ematen hasi aurretik, kontratua betetzeko jarritako langileak Gizarte Segurantzan afiliaturik eta alta emanik daudela egiaztatu beharko du.

- Enpresa kontratistak, klausula honetan bere gain hartutako betebeharrak urratzearen ondorioz, erakunde kontratatzaileari kopuru batzuk ordaintzeko zigorra ezarriko baliote kontratistarekiko solidariotasunagatik, erakunde kontratatzaileak kontratistari ordaindutako kopuruak ordainaraziko dizkio. Horretarako, egoki eta komenigarria den edozein akzio, administratibo edo judizial, abiatu ahal izango dute erakunde kontratatzaileek, ordaindutako kopuru guztiak berreskuratu arte.

- Kontratistak bete egin beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean DBEO) pertsona fisikoen babesari buruz xedatutakotik kontratistarentzat eratortzen diren betebeharrak, bai datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, bai datuon zirkulazio libreari dagokionez; eta bete

egin beharko du, halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean, bere jardueren esparruan, bere kontura eta berak hala erabakita egindako edozein datu tratamendurengatik datuak babesteari buruz aplikatzekoa den beste edozein arau.

Aurreko betebeharra gorabehera, hala badagokio, **Karatularen 17. puntuan** izaera espezifikoz xedatzen dena bete beharko da, erakunde kontratatzaileak balizko datu tratamenduak egiteari dagokionez.

- Kontratista behartuta egongo da, hala badagokio eta izaera espezifikoz, **Karatularen 16. puntuan** adierazten diren baldintzak betetzera.

20. KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Hauek izango dira kontratuko funtsezko betebeharrak:

- Kontratuaren betebehar nagusia kontratuaren klausuletan, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian xedatutakoari zorrotz jarraituz betetzea.

- **Karatularen 5. puntuan** ezarritako entrega epea betetzea.

- Eskainitako berme epea betetzea.

- Kontratuak indarrean dauden legezko eta arauzko xedapenak eta xedapen konbentzionalak bete behar ditu, laneko gaietan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko osasunaren arloan aplikatu beharrekoak.

- Kontratua betetzeko, kontratistak bere eskaintzan agindutako giza baliabideak edota baliabide materialak jartzea.

- Kontratistak jarduera egiteko behar diren lizentzia eta baimenak bere kontu eskuratzea.

- Hornidura egiteko, une bakoitzean aplikatu beharreko indarreko araudi sektorialean xedatzen denari jarraitzea. Horretarako, bai kontratistak bai kontratistaren langileek, hala badagokio, obligazioak betetzen dituztela egiaztatzeko indarreko araudiak une bakoitzean eskatzen dituen agiriak edukiko dituzte.

- Behin betiko bermea mantentzea eta berrezartzea.

- Gutxienez kontratua betetzen den bitartean, Agiri honen 25. Klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguru propioak kontratatzea edo mantentzea.

- Kontratua betetzeak eskatzen dituen operazioen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak indemnizatzea.
- Erakunde kontratatzaileak kontratua egoki garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea –ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe–, esaterako, laneko bileretara nahiz informazio bileretara joatea. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.
- Greba egonez gero, zerbitzuak betetzea. Zerbitzu horiek bermatu ezean, erakunde kontratatzaileak ahalmena izango du zerbitzuak betetzeko behar diren kontratuak sustatzeko, aipatutako kontratuon zenbatekoak fakturaziotik kenduz.
  Grebak dirauen bitartean, benetan emandako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.
- Dagokien funtzioa behar besteko arduraz eta eraginkortasunez betetzen ez duten langileak, gaiturik ez daudenak, zerbitzua ematean kontuz ibiltzen ez direnak eta kontratuaren martxa onerako ekintza kaltegarriak egiten dituztenak ordeztea. Hori egingo da hogeita lau orduko gehienezko epean, erakunde kontratatzaileak horretarako errekerimendua egiten duen unetik zenbatzen hasita. Langileak ordezteak ez dakarkio inolako erantzukizunik erakunde kontratatzaileari, kontratistaren eta eragindako langileen arteko harremanei dagokienez.

Langile horiek egiaztatu egin beharko dute, jardunean hasi aurretik, badaukatela eduki beharreko baimena.

- Gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarrengatiko bajen ondoriozko lan absentziak betetzeko langile ordezkapenak egitea, kontratatutako zerbitzuak eraginkorki eta modu jarraituan emango direla bermatzeko. Hori gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo da.

- SPKLren 202. artikuluan xedatutakoa betez, kontratua betetzeko baldintza berezi hau ezartzen da, izaera sozialekoa eta kontratuen lan egonkortasunari buruzkoa: kontratistak atxikitako langileen plantillari eutsi beharko dio kontratua indarrean dagoen bitartean, eta ez da bidezkoa izango atxikitako plantilla horren lan kontratuak etetea edo azkentzea, salbu eta langilearen borondatearen, diziplinazko kaleratzeen, erakunde kontratatzailearekin bat ez etortzearen edo aurrekontu egonkortasuneko arrazoiengatik kontratua aldatzearen ondoriozko eteteak edo azkentzeak gertatzen direnean, edo gerora sortutako inguruabarrak direla-eta enpresa Langileen Estatutuaren 51. artikuluan xedatutako kasuren batean dagoenean izan ezik.

  Gauzatzeko baldintza berezi hori betetzen dela egiaztatzeko, kontratua gauzatzen hasi aurretik, baita kontratuaren indarraldiko hilabete bakoitzean ere, kontratistak kontratuko lanetarako atxikitako langileen zerrenda bat aurkeztu beharko du, eta zerrenda hori aldatu badu aurreko paragrafoan azaldutako arrazoiak daudela justifikatu beharko du.

  Kontratua gauzatzeko baldintza berezi hori kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratistei ere eskatuko zaie.”

- Ingurumen baldintza gisa, %100 birziklatutako papera erabiltzeko betebeharra ezartzen da.

- Datuak babesteari buruz bete beharreko obligazioak betetzea eta hori behar bezala egiaztatzea, Agiri honetan, Karatulan edo gaiari buruz aplikatzekoa den legedian xedatutakoari jarraituz.

- **Karatularen 16. puntuan** adierazten diren betebeharrak, hala badagokio eta izaera espezifikoz, betetzea.

Klausula honetan eta **Karatularen 15. puntuan** xedatzen diren betebeharrak kontratuko funtsezko betebehartzat joko dira SPKLren 211. f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako; beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsitzeko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero.

21. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak bete egin beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean DBEO) pertsona fisikoen babesari buruz xedatutakotik kontratistarentzat eratortzen diren betebeharrak, bai datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, bai datuon zirkulazio libreari dagokionez; eta bete egin beharko du, halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean, bere jardueren esparruan, bere kontura

eta berak hala erabakita egindako edozein datu tratamendurengatik datuak babesteari buruz aplikatzekoa den beste edozein arau.

Aurreko betebeharra gorabehera, hala badagokio, **Karatularen 17. puntuan** izaera espezifikoz xedatzen dena bete beharko da, erakunde kontratatzaileak balizko datu tratamenduak egiteari dagokionez.

22. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

Indarreko legediak informazio publikoa eskuratzeari buruz xedatzen duenaren kalterik gabe eta esleipenaren publizitateari buruz eta enpresa hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLn jasotzen diren xedapenen kalterik gabe, erakunde kontratatzaileak ezin izango du zabaldu enpresa lizitatzaileek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jota eman duten informazioa. Konfidentzialak izango dira, besteak beste, sekretu tekniko eta komertzialak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lizitazio prozedura honetan edo hurrengoetan lehia desitxuratzeko erabil daitekeen gainerako informazio guztia.

Kontratistak errespetatu egin beharko du kontratua betetzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta Agirietan edo kontratuan informazio hori konfidentzialtzat jo bada, edo daukan izaeragatik informazio konfidentzial gisa tratatu behar bada.

Konfidentzialtasunaren betebeharra **Karatularen 18. puntuan** adierazten den epean mantenduko da.

23. ERANTZUKIZUNA

Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule; era berean, bera izango da kontratua betetzean egindako omisio, hutsegite, metodo desegoki edo konklusio okerrengatik erakunde kontratatzaileari edo hirugarrenei eragindako ondorioen erantzule.

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua betetzeak eskatzen dituen operazioen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak indemnizatzea.

24. ASEGURUAK

Kontratuak dirauen aldi osorako, enpresa kontratistak **Karatularen 20. puntuan** adierazten diren aseguruak eskuratuko ditu bere kontu, bertan adierazten diren baldintzetan.

25. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistaren betebeharra izango da, baimendutako iturrien bidez eta soilik bere kontu, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian xedatutakoari jarraituz, lortu, jarri edota mantendu behar dituen ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo bestelako ekipamendu edota baliabide lagungarriak erabiltzeko nahiz ustiatzeko lizentziak eta eskubideak eskuratzea, kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko.

Era berean, kontratazio honi goitik behera aplikatzekoa izango zaio SPKLren 308.1. artikuluan xedatzen dena. Hori hala, kontratuaren xede diren zerbitzuak betetzearen emaitzaren gaineko jabetza –osoki hartuta edo edozein fasetakoa kontuan hartuta– soilik erakunde kontratatzailearena izango da. Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, kontratistak, hala badagokio, ez duenik izango autore izatearen eskubide moralik edota asmatzaile gisa errekonozitua izateko eskubiderik –erakunde kontratatzaileak behar bezala zainduta–, Jabetza Intelektualeko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta Patenteen uztailaren 24ko 24/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, eta, hala badagokio, **Karatularen 19. puntuan** izaera espezifikoz xedatzen denaren kalterik gabe, kontratistak ziurtatuko dio erakunde kontratatzaileari kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitza era baketsuan erabiliko duela eta, hala badagokio, kontratua osatzen duen edozein elementuri buruzko lizentziak eta eskubideak zilegitasunez eta baimendutako iturrien bidez eskuratuko dituela; hori hala, entregatzeko unean, adieraziko du emaitza horretan ez dagoela kontratazio honen arabera erakunde kontratatzaileari dagozkion eskubideei kontra egiten dien inolako konpromisorik edo kargarik.

Nolanahi ere den, kontratista kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek Jabetza Intelektualaren zein Industrialaren inguruan plantea ditzaketen erreklamazio guztien erantzule izango da, gai hauei dagokienez:

- Zerbitzuak ematean, Jabetza Industrial edo Intelektualeko eskubideen bitartez babesturik dauden material, erreminta eta gainerako tresnen erabilpena.
- Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta emaitza hori osatzen duen edozein elementu.

Aipatutakoa kontuan hartuta, kontratistak indemnizatu egin beharko du erakunde kontratatzailea aipatutako kontzeptuei buruzko erreklamazioetatik erator daitezkeen kalte eta galera guztiengatik.

26. ZIGORRAK

a) Berandutzeagatiko zigorrak.

Kontratista, berari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla eta, atzeratu egiten bada eta Agiri honetan zein Karatulan zehaztutako edozein epe betetzen ez badu, erakunde kontratatzaileak aukera izango du, edo kontratua suntsiarazteko, Agiri honen 32. Klausulan xedatzen den eran, edo kontratua betetzen jarraitzeko; azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen aldeko kalte eta galerengatiko indemnizazioez gain, **Karatularen 21. puntuan** adierazten diren zigorrak sortuko dira.

Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko, ez da beharrezko izango erakunde kontratatzaileak aurrez intimazioa egitea.

b) Kontratatutako prestazioak oker gauzatzeagatiko edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatiko zigorrak.

Kontratista, berari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla eta, kontratatutako prestazioak oker gauzatzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratatzaileak aukera izango du, edo kontratua suntsiarazteko, Agiri honen 32. Klausulan xedatzen den eran, edo kontratua betetzen jarraitzeko; azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen aldeko kalte eta galerengatiko indemnizazioez gain, **Karatularen 21. puntuan** adierazten diren zigorrak sortuko dira.

Zigor horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo partzialetik kenduko dira; bestela, aipatutako zenbatekotik kendu ezin badira, bermetik kenduko dira, eta bermea gainditzen duen kopurua erreklamatu ahal izango da.

Nolanahi ere, kontratua suntsiaraztearen alde egin, kontratua jarraitzearen alde egin, erakunde kontratatzaileak aldebakarreko erabakia hartu ahal izango du kontratua nahi beste denboran luzatzeko, baliabide propioen edo hirugarrenen bidez, eta kasu bietan, jarraipenaren kostua enpresa kontratistari jasanaraziko zaio; horrek ez du esan nahi, ordea, Klausula honetan xedatzen diren kalte eta galerengatiko indemnizazioak eta gainerako ondorioak gauzatuko ez direnik.

27. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratistaren ondorengotza kasuak –SPKLren 98. puntuan jasotakoak– alde batera utzirik, kontratuaren aldaketa subjektiboa kontratu lagapen bidez baino ezin izango da egin, Klausula honetan xedatzen diren mugen barruan, eta aukera hori **Karatularen 2721. puntuan** berariaz xedatzen baldin bada.

Lagapena egiteko, SPKLren 214.2 artikuluaren a), b), c) eta d) letretan eskatzen diren baldintzak bete beharko dira, hots:

a) Kontratazio Organoak berariaz eta aldez aurretik ematea lagapena egiteko baimena, SPKLren 214.2.a) artikuluan jasotzen den eran. Baimen eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta epe hori igarota, emana dagoela ulertuko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren %20 gutxienez gauzatuta edukitzea, SPKLren 214.2.b) artikuluan jasotzen den eran.
c) Lagapen hartzaile den enpresak sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko gaitasuna izatea, eta eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala edukitzea, eta ez edukitzea kontratatzeko inolako debekurik, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazten den eran.
d) Esleipendunaren eta lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazten den eran.

Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

28. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarren batzuekin egin ahal izango du prestazioaren zati bat, Klausula honek eta SPKLren 215. artikuluak xedatzen dutenaren arabera, **Karatularen 23. puntuan** adierazitako prestazioak izan ezik.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari, kontratua esleitu ondoren eta gehienez ere kontratua betetzen hasi artean, azpikontratatzeko asmoa duela. Bertan zehaztu beharko du prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen, eta azpikontratatuaren nortasuna, harremanetarako datuak eta lege ordezkaria(k) zein diren, behar bezala justifikatuz azpikontratatu horrek kontratua betetzeko behar adina gaitasun baduela, erabilgarri dituen elementu teknikoei, giza baliabideei eta eskarmentuari erreferentzia eginez, eta egiaztatuz ez duela kontratatzeko inolako debekurik, SPKLren 71. artikuluarekin bat etorrita.

Kontratista nagusiak idatziz eman beharko dio Kontratazio Organoari kontratu nagusia bete bitartean informazio horrek izan dezakeen aldaketa ororen berri, baita azpikontratatu berriei buruz beharrezkoa den informazio guztia ere.

Azpikontratatuak kontratu espezifikotik azpikontratatutako zatia egiteko sailkapen egokia izanez gero, horren berri ematea nahikoa izango da beharrezko gaitasuna baduela egiaztatzeko.

Azpikontratatuaren gaitasuna azpikontratua izenpetu eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta hori beharrezkoa bada larrialdi egoera bati erantzuteko edo larrialdiko neurriak hartu behar badira, behar bezala justifikatuta.

Azpikontratatutako enpresek kontratista nagusiarekin baino ez dituzte izango betebeharrak, eta kontratista horrek izango du, beraz, kontratu espezifikoa betetzeko erabateko erantzukizuna erakunde kontratatzailearen aurrean, Agirian xedatutakoa eta kontratuaren baldintzak zorrotz betez, SPKLren 201. artikuluak ingurumen, gizarte eta lan arloekin lotuta xedatutako betebeharrak barne.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuei buruz duen ezagutzak ez du aldatuko kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa.

Azpikontratatuei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak, eta ordainketa horien egiaztapena,

SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

29. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak SPKLren 205. artikuluan xedatzen diren kasuetan aldatu ahal izango du kontratua.

Modu osagarrian, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du **Karatularen 24. puntuan** berariaz jakinarazten denean aukera hori, bertan xedatzen diren baldintzetan.

Kontratua aldatzeak ezin izango du berekin ekarri kontratuan xedatzen ez diren prezio unitario berriak ezartzea.

Kontratu aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

Hala ere, hornidura kontratuaren prezioa prezio unitarioen bidez zehazten bada, hornitu beharreko unitate kopurua kontratuaren prezioaren %10era arte handitu ahal izango da, SPKLren 205.2.c)3 artikuluan aipatzen denaren arabera, eta ez da beharrezkoa izango aldatzeko dagokion espedientea izapidetzea, SPKLren 301. Artikuluan xedatutakoaren arabera, zeina, ondorio hauetarako berariaz aplikatu beharrekotzat jotzen baita.

30. HARRERA ETA BERME EPEA

Kontratua betetzat emango da kontratistak prestazio osoa egiten duenean, kontratuko baldintzen arabera eta erakunde kontratatzailearen onespena jasota.

Harrera partzial bakoitzean, hala badagokio, eta baita harrera osoa egiten denean ere, erakunde kontratatzaileak zehaztuko du ea kontratistak egindako prestazioa bat datorren kontratua betetzeko ezarritako baldintzekin, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak egitea eta harreran nabaritutako akatsak zuzentzea eskatuko du.

Kontratistari lepora dakizkiokeen bizio edo akatsak direla-eta egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, erakunde kontratatzaileak uko egin ahalko dio prestazioari, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo, hala badagokio, eskubidea izango du ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

Hori guztia 21. Klausulan xedatutakoaren kalterik gabe, erakunde kontratatzaileak dagozkion kalte-ordainak galdatu ahal izango dituelarik, kalte-galeren indemnizazioaz gain berandutzeagatik, kontratatutako lanak oker betetzeagatik eta/edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatik.

Berme epea **Karatularen 25. puntuan** adierazten da.

Berme epe horretan egiaztatzen bada egindako lanetan bizioak edo akatsak daudela, Kontratazio Organoak eskubidea izango du kontratistari zuzendu ditzan erreklamatzeko, hori nahikoa bada.

Berme epean, Kontratazio Organoak uste badu hornitutako ondasuna ez dela egokia nahi den helbururako, kontratistari egotz dakizkiokeen bizio edo akatsen ondorioz, eta uste badu ondasuna berrezartzea edo konpontzea ez dela nahikoa helburu hori lortzeko, epea amaitu baino lehen atzera bota ahal izango du hornidura, kontratistaren kontura utzita, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Berme epea amaitzen bada Erakunde Kontratatzaileak klausula honetan aipatzen diren konponketak edo salaketa formalizatu gabe, kontratistak ez du egindako prestazioaren erantzukizunik izango.

31. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du baldin eta kontratistari SPKLren 208.2 artikuluan xedatzen diren kalte eta galerak ordaintzen badizkio, izan ere, ondorio horietarako, artikulu hori aplikatu beharrekotzat jotzen baita berariaz.

32. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua azkenduko da, edo bete egin delako, edo ondoren arautzen denaren arabera suntsitzea erabaki delako.

Hona hemen kontratua suntsiarazteko arrazoiak, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero:

a) Konkurtso deklarazioa edo kaudimengabezia deklarazioa beste edozein prozeduratan.

b) Kontratista berandutzea epeak betetzeko orduan.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, baldin eta betebeharrok funtsezkotzat jotzen badira.

e) Prestazioa hasieran itundutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, Agiri honetan xedatutakoaren arabera kontratua aldatzea ezinezkoa denean.

f) Kontratua bete bitartean, kontratistak ez ordaintzea soldatarik bertan jardun duten langileei, edo langileoi aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan zehaztutako baldintzak ez betetzea kontratua bete bitartean.

g) Oro har, kontratuko betebeharren edozein ez-betetze, Kode Zibilaren 1124. artikuluan xedatutakoaren arabera.

h) SPKLren 313. artikuluaren 1. atalean kontratua suntsiarazteko jasotzen diren arrazoiak, zeinak aplikatzekotzat jotzen baitira berariaz, hots:
   1. Zerbitzuak ematen hasi aurretik atzera egitea, edo, Kontratazio Organoari lepora dakiokeen arrazoiren bategatik, kontratua hasteko jarritako datatik zenbatzen hasi eta lau hilabete baino gehiagoan etenda egotea.
   2. Zerbitzua ematen hasi ondoren atzera egitea, edo zortzi hilabete baino gehiagoan kontratua etetea, Kontratazio Organoak hala erabakita.

Klausula honetan kontratua suntsitzeko jasotzen den edozein arrazoitan, suntsitze hori automatikoa izango da; erakunde kontratatzaileak kontratistari horretarako erabakia modu frogagarrian jakinaraztea besterik ez da beharko.

Jakinarazpena jasotakoan, kontratistak erakunde kontratatzaileari entregatu beharko dizkio, eta haren esku utzi, prestazioak gauzatzeko une horretara arte eginak dituen dokumentu guztiak; baita kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazio eta informazioa ere, enpresa kontratatzaileak erabilitako eta kontratistari entregatutako dokumentuekin batera. Dokumentu horiek guztiak erakunde kontratatzailearen jabetzakoak izatera pasatuko dira.

Horrek ez du esan nahi, ordea, dagokion kontratu likidazioa egingo ez denik, jarraian xedatzen denaren arabera.

Klausula honetan xedatutako arrazoiak direla-eta, edo legez egoki izan litekeen beste edozein arrazoi dela-eta, kontratua suntsitzen bada, horrek ekar litzakeen erantzukizun ekonomikoak kontratua egiazki suntsitzen denean likidatuko dira; horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratatzaileak hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Suntsiarazpen kasu guztietan, kontratistak, berez, egiazki gauzatu dituen prestazio onartu guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Kontratua kontratistari lepora dakiokeen edozein arrazoirengatik suntsiarazten bada, Karatularen **26**. puntuan xedatzen den zenbatekoa sortuko da erakunde kontratatzailearen alde, dagozkion kalte eta galerengatiko indemnizazioez gainera. Bi zenbateko horiek kontratistak jarritako behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeko falta den preziotik kenduko dira; hortik gorako zatiari dagokionez, erreklamazioa egingo litzateke.

Aurrekoa gorabehera, berariaz adierazten da SPKLren 313. artikuluaren 3. atala aplikatuko dela, hots:

a) Klausula honen h.1 letran xedatzen diren suntsiarazpen kasuetan, kontratistak soilik kontratuaren esleipen prezioaren %3ko indemnizazioa jasotzeko eskubidea izango du (BEZ barik) kontzeptu guztiengatik.
   b) Klausula honen h.2 letran xedatzen diren suntsiarazpen kasuetan, eman gabe utzitako zerbitzuak kontratatzeko esleipen prezioaren %6ko indemnizazioa jasotzeko eskubidea izango du (BEZ barik), kontzeptu guztiengatik, etekin industrial gisa.

Azkenik, erakunde kontratatzailea eta kontratista ados jar daitezke kontratua suntsiarazteko; kasu horretan, alderdien eskubideak beraiek balioz hitzartu dutenera egokituko dira.

33. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da eta, prestaketari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen bidez eta Baldintza Teknikoen Agiriaren bidez arautzen da. Esleipenari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren agiri honi eta Baldintza Teknikoen agiriari jarraituko die, eta horietan xedatzen ez diren gauzetan, SPKLn horretarako xedatzen diren arauei (erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetarako, botere esleitzailetzat jo arren Administrazio Publiko izaerarik ez duten sektore publikoko erakundeek egiten dituztenean kontratuak).

Kontratuaren ondorioei eta azkentzeari dagokienez, kontratuak Administrazio Klausula Partikularren Agiri honi, Baldintza Teknikoen Agiriari eta, bi horietan xedatzen ez diren gauzetan, zuzenbide pribatuko arauei jarraituko die. Dena dela, kontratuari aplikatzekoak izango dira SPKLren 319. artikuluan "Ondorioei eta azkentzeari" buruz xedatzen diren arauak.

Modu osagarrian, SPKL eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua aplikatzekoak izango dira agiri honek arauzko testu horietara berariaz jotzen duen aldiro.

34. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du kontratuaren prestaketa, esleipen eta aldaketei dagozkien auzigaiak ebazteko eskumena, azken horien inpugnazioa SPKLren 204. eta 205. artikuluetan xedatutakoa ez betetzean oinarritzen bada, eta aldaketak beste esleipen bat eragin behar zuela ulertzen denean.
Hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean errekurtsoa jarriko da, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denaren arabera.

Jurisdikzio ordena zibilak izango du eskumena kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko, Klausula honen lehen paragrafoan aipatzen diren kontratu aldaketei buruzko eztabaidetan izan ezik.

I. eranskina. Abal eredua.

[…] erakundeak (kreditu erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFK […] eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) […](e)an dituenak, eta haren izenean […](e)k (ahalordedunen izen-abizenak), egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde dutenak, dokumentu honen behealdean adierazitako ahalorde askiestetik ondorioztatzen denez […](abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala), IFK […] duena, […] euroko zenbatekoan ABALATZEN DU, […] kontratuaren ondoriozko betebeharrengatik erantzuteko.

Erakunde abalemaileak bere erantzukizunpean adierazten du Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen 1098/2001 Errege Dekretuaren, urriaren 12koaren, 56.2 artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituela. Abal hori notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, eskusio eta banaketa onurari espresuki uko eginda, eta […](r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da […](e)k abala kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte.

[…](e)n, […](e)ko […]ren […](ea)n.

[Sinadura]

II. Eranskina. Erantzukizunpeko adierazpen eredua, baldin eta erakunde lizitatzaileak, eskatzen den kaudimena edo behar diren baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimen edo baliabideetan oinarritu nahi badu.

[OHARRA: Kasu hauetan baino ez da aurkeztu behar: lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu badu, eta erakunde lizitatzaileak, eskatzen den kaudimena edota behar diren baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimen edota baliabideetan oinarritu nahi badu. ***Hirugarren erakundeak bete behar du]***

[…] jaunak/andreak, […] NAN zk. duenak, […] enpresaren lege ordezkari gisa (IFK:.....), adierazten du ezagutzen dituela […] (enpresa lizitatzailearen izena) lizitatzailea aurkeztu den kontratazio lizitazioaren baldintzak, eta adierazten du, esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak lizitatzaile horren eskura jartzeko borondate ezeztaezina, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa berariaz onartuz. Halaber, […](e)k berariaz baimendu beharko du bere ordezkapena edo aldaketa.

Halaber adierazten du eskaintza hau aurkezten den egunean ez duela kontratatzeko inolako debekurik; debeku horiek Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, 71. artikuluan daude jasota, zeinaren bidez espainiar araubide juridikora lekualdatzen diren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

Idatzi hori […](r)en aurrean aurkeztuz gero, konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzailea esleipendun gertatzen bada.

[…](e)n, […](e)ko […]ren […](ea)n.

[Sinadura]

III. Eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).

IV. Eranskina. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko baliabidea izendatzea.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NANa duenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NANa edo IFK duen […] ordezkatuz, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, […] lizitazioa ezagututa, agiri honen bidez adierazi nahi du lizitazio honen ondorioz […](e)k egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko, honako baliabide hau lehenesten duela (*):

€ **Posta elektronikoa.**

€ **Posta ziurtatua.**

€ **Faxa.**

(*) Adierazi aukeratutako baliabidea.

Nolanahi ere, jakinarazpenak egiteko honako datu hauek adierazten dira:

Posta elektronikoaren helbidea: …….

Posta helbidea: ……..

Fax zk.: ……..

Harremanetarako telefonoa/k: ……..

[Oharra: Jakinarazpenak ahalik eta arinen egiteko, lizitatzailearen posta elektronikoari lehentasuna ematea gomendatzen dizuegu. Baliabide hori erabat balioduna izango da jakinarazpenetarako, lizitatzaileak berak adierazitako baliabidea izaki. Hala ere, beste baliabide bat aukera daiteke lehentasunezkoa izateko. Ez bada aukerarik egiten, posta ziurtatu bidez egingo dira jakinarazpenak, adierazitako helbidean.]

V. Eranskina. Formulak erabiliz ebaluagarriak diren irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NANa duenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NANa edo IFK duen […] ordezkatuz, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, […] prozedura bidez […] kontratatzeko lizitazioa ezagututa, agiri honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. Konpromisoa hartzen duela […] kontratua betetzeko, baldintza hauen arabera:

- **Eskainitako prezioa:**

Profilak	Gehieneko prezioa ORDUA, BEZik GABE	Pisua	Eskainitako orduko prezioa BEZik gabe	Eskainitako orduko prezioa BEZarekin
Proiektuburua	55,75	0,05		
Anal. teknikari-programatzailea	47,25	0,25		
Programatzailea	40,75	0,70		

ESKAINTZA (€ orduko, profilen arabera haztatua) =∑ (eskainitako prezioak BEZik gabe x Pisu Erlatiboa)

- **…**……. euro BEZik gabe
- **……..euro BEZarekin**

- **Baliabideak esleitzeko denbora: …… egun**
- **Ziurtagiriak eta Auditoretzak:**

Egiaztapena	Data
ISO 20.000	
ISO 27.000	
CMMI 3 edo goragokoa	
CMMI 3 baino txikiagoa	
ISO 14001	
ISO 9001	
Microsoftek gainbegiratuta emandako akreditazio pertsonalak, .NET eta SQL Server sistemetan.	

- **HAZIren egoitzara joateko denbora: ……minutu**

2. Kontratua arautzen duen dokumentazioa ezagutzen duela, eta berariaz eta osoki bere gain hartzen eta onesten duela.

[…](e)n, […](e)ko […]ren […](ea)n.

[Sinadura]